

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskaten diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea
2. Sektorea:	Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituena, bai eta gizartea sentsibilizatzen duena ere, EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko xedez.
3. Langile kopurua:	37
4. Webgunea:	https://www.emakunde.euskadi.eus/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	Erakundeak bi jardute arlo nagusi ditu: Alde batetik, administrazio publikoekin burututako lana, berdintasunaren aldeko egiturak sendotzeko eta politika publikoetan generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak martxan jar daitezen bultzatzeko; bestetik, gizartearekin oro har egiten duen lana, emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, enpresetan berdintasuna egon dadin lortzeko, emakumeekiko indarkeria prebenitzeko, diskriminazio kasuetan aholkularitza eta defentsa eskainiz, bai eta gizartea berdintasunaren alde sentsibilizatzeke ere.

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Nagore Gomara Picaza
Helbide elektronikoa:	n-gomara@euskadi.eus
Telefonoa:	945 016 731

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	IDATZIZKO TESTUAK SORTZEKO HIZKUNTZA (eta ITZULTZEKO NORABIDEA) ZEHAZTEN DUEN PROZEDURA
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Prozeduraren bitartez zehazten da, hizkuntza-gaitasun erreala araberara, zer hizkuntzatan idatzi behar diren testu laburrak eta luzeak.</p> <p>Batetik, Emakunde osatzen duten pertsonen ia % 100 gai da euskaraz ulertzeko. Izan ere, EMAKUNDEN. Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila % 89 da; 37 lagunen artean 4k ez dute dagokien eskakizuna beteta. Horietatik bat gai da hitz egiteko, eta beste hiruek maila handi batean ulertzen dute (1 euskara ikasteko liberatuta dago; egunean 2 orduz).</p> <p>Hori kontuan izanda; bestetik, Emakundeko EUSKARA-PLANAREN helburuetan jasota dago:</p> <ul style="list-style-type: none">• Herriarrari euskarazko zerbitzua bermatzea. Horretarako, langile guztiak gaitzea eta euskarazko zerbitzua berma dezaten estrategiak lantzea, langileek duten hizkuntza-eskakizuna egin beharreko lanarekin bat etortzeko.• Euskara lan-hizkuntza izan dadin atzera bueltarik gabeko urratsak ematen segitzea. <p>Eta bukatzeko, VI. Plangintzaldiaren gidalero nagusietako bat da</p> <ul style="list-style-type: none">• Euskara lan-hizkuntza izatea bultzatuko da, horrela euskara zerbitzu-hizkuntza ere izateko aurrerapausoak egingo dira. <p>Horiek horrela, eta itzultzaile neuronalak eskaintzen duen aukera, nagusiki euskaratik gaztelaniara izan zedin (eta alderantzizko joera gailentzeko egon zitekeen arriskua saihesteko), testuen sortze-hizkuntza eta itzultzeko norabidea nolabait "arautzea" erabaki zen. Betiere, benetako gaitasuna kontuan izanda, urratsak poliki eginez, eta beharreko baliabideak eta laguntzak eskainik.</p> <p>Prozedura onartu aurretik, Euskara Batzordean kontrastatu eta osatu zen. Eta abian jarri aurretik, zerbitzu guztietan aurkeztu zen, eta betetzeko zailtasun eta kezka jaso ziren.</p> <p>Horrela, EMAKUNDEN, idatzi laburretatik hasi gara, eta gaur egun, e-mailen ehuneko handi bat euskara hutsean sortzen da. Neurketa bat egin dugu, eta hauek dira emaitzak: % 70 inguru sortzen dira euskaraz.</p> <p>Testu luzeen kasuan, oraindik urratsak eman beharra dago, baina, langile berriak sartzean prozedura horren arabera lan egin beharko dute. Hala ere, langile batzuek dagoeneko euskaraz sortzen dute; eta, horrez gain, zerbitzu guztietan</p>

hartu da konpromisoa testu luzeak euskaraz sortzeko urratsak egiteko. Horretarako, zerbitzu bakoitzak prozedura bat aukeratu du osorik euskaraz kudeatzeko.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)